

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ikasturte honetako unibertsitate-garraiorako laguntzak eskatzeko epea zabaldu du

700.000 euro jarriko du finantzaketarako eta hitzarmenak izenpetuko ditu bidaiarien linea erregularretako esleipendun enpresekin

Jueves, 20 de septiembre de 2012

Nafarroako Gobernuak [unibertsitate-garraioari laguntzak](#) emateko eskaerak aurkezteko epea zabaldu du; 2012-2013 ikasturte honetan 70.000 eurokoak izango dira. Interesa duten pertsonak eskaerak irailaren 28a arte aurkeztu ahaliko dituzte Foru Gobernuako erregistro ezberdinetan edo [30/1992 Legearen](#) 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bulegotan.

Irailaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratutako [58E/2012 Ebazpen](#)ean jasotzen denez, laguntza horiek jaso ditzakete: garraio-bekarik ez duten unibertsitateko ikasleek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Iruñea eta Tuterako campusetan, Nafarroako Unibertsitateko Iruñeko campusean, Iruñeko eta Tuterako UHUNeko kide diren zentroetan edo Musikako Goi Mailako Kontserbatorioan ikasten ari direnek.

Horretarako, Iruñeritik at bizi beharko dute, Nafarroako hiriburuko edo Tuterako zentroetan ikasten badute, Erriberako hiriko campusera joaten badira, eta ikastetxera eskualdeen arteko garraioan joan beharko dute. Halaber, aurreko ikasturtean gutxienez 48 kreditu gainditu izana eskatzen da edo 5,50 puntutik gorako sarrera-nota izatea unibertsitatean estreinakoz matrikulatzen badira. Gainera, Nafarroako Gobernuaren gazte-txartelaren titular izan beharko dira (baldintzak betetzen direnean).

Oro har, txartelaren prezioaren % 50 itzuliko da laguntzaren bitartez. Horretarako, onuradunek Hezkuntza Departamentuan aurkeztu beharko dute 2013ko urtarileko, apirileko eta uztaileko lehen 15 egunetan unibertsitate-garraioan aurreko hilabeteetan erabili dituzten txartelak.

Hitzarmena enpresekin

Bestalde, Nafarroako Gobernuak hitzarmenak sinatuko ditu bidaiarien garraio-enpresekin unibertsitarioak Iruñea edo Tuterara ailega daitezen lehen eskola baino lehen, beti 08:00ak baino lehen, eta beren jatorrizko udalerrietara itzul ahal daitezen 21:00ak baino lehen. Eguneko lehen zerbitzuan nahiz arratsaldeko azkenekoan, autobusek geldialdi bat egin beharko dute unibertsitate bakoitzetik gertu dauden ohiko tokietan.

Gainera, aparteko bi zerbitzu horietan behar beste leku izan beharko dute; hala, ikasle bat bera ere ez da eserlekutik gabe geratuko. Gainerako ordutegian, onuradunek gainerako bidaiariek dituzten eskubide berak izango dituzte. Ikasleek, gainera, beraien eskaera betetzeko unean

konprometitutako ordutegia errespetatu beharko dute.